...Fati...

OIHANE HORTALEZA GÓMEZ
Lehen Hezkuntza 5. eta 6. mailak 1. saria
Lizarrako Lizarra Ikastola

Atzo gauean, amets arraro bat izan nuen. Ez zen izan betiko ametsak bezalakoa. Ez, atzo gauean bizitako ametsa benetan ez dut ahaztuko. Ohera sartu aurretik ez nuen ezer arrarorik egin. Beti bezala hortzak garbitu eta ohera sartu nintzen. Sartu nintzen momentu horretatik aurrera ez dut ezer gogoratzen, baina segituan goiza zela amestu nuen.

Zerbait arraroa sentitzen nuen nire barnean. Besoak mugiarazten zizkidan zerbait. Besoak mugitu eta lurretik altxatu nintzela sentitu nuen. Beldurtuta ohera sartu eta lotan nengoela egin nuen, baina zoritxarrez horrek ez zuen funtzionatu eta berriro ere besoak mugitzerakoan lurretik altxatzen nintzela sentitu nuen.

Oraingoan, ez nintzen beldurtu eta leihoa ireki ondoren kanporantz joan nintzen. Hiritik birak ematen egon nintzen denbora luze batez, baina azkenean aire korronte gogor batean sartu nintzen konturatu gabe. Korronte elektriko baten makilaren kontra jo eta konorterik gabe geratu nintzen.

Bat-batean, txabola pobre batean lasto batzuen gainean etzanda nengoen, emakume bat eta neskatxa bat zeuden nire inguruan.

Konturatu nintzen lehen gauza, lurralde pobre batean nengoela izan zen, baina arraroa iruditu zitzaidan zeren ikastolan inoiz ez nuen horrelako lurralderik zegoela jakin.

Nire ondoan zegoen emakumeari galdetu nion:

–Barkatu,baina non nago?

–Mauritania lurraldean zaude, txiki– oso jator emakumeak.

Hori esan ondoren, nik nire burua aurkeztu nuen, nire izena Oihane zela eta 12 urte nituela eta momentu berberean emakumeak bere izena Indala zela eta bere alabarena Fatimetu zela esan zidan.

Fatimetuk bueltatxo bat ematera gonbidatu ninduen eta nik oso gustura baietz esan nion. Hori egin ondoren biak herria ezagutzera abiatu ginen.

Gauza oso tristea zen hango pobrezia eta hondamena. Baina bat-batean, haur txiki batzuk ikusi nituen. Pozik jolasten ziren elkarrekin, bere jantziak politak edo itsusiak ziren ez zitzaien inporta. Bere jostailuak makil batzuk ziren eta primeran pasatzen zuten, ez zuten Nintendo ds bat izateko beharrik.

Ume horiek ez zituzten arropa ugari, ezta dsak, ezta milaka jostailu eta primeran pasatzen ari ziren elkarrekin jolasten.

Hango pertsona guztiak horrelakoak ziren. Ez zitzaien inporta ezer ere ez izatea, beraiek zuten guztia ematen zizuten behar bazenu.

Fatimetuk txabola batean sartzeko esan zidan eta nik atzetik jarraitu nion.

Hango txabolan zegoena ez dut inoiz ahaztuko, benetan polita izan zelako.

Ume txikitxo bat jaiotzen ari zen eta jaio ondoren amaren besoetan zegoenean, umeak irribarre bat bota zion amari. Haurra benetan polita zen, begi beltz-beltzak zituen eta larru kolorea benetan iluna zuen txikiak.

–Hau Ientzi da. – esan zidan Fatimetuk jaio berriari begira.

–Benetan ederra da. –esan nuen.

Ientzik irribarre egin zidan eta nik pozik irribarrea bueltatu nion.

–Beno, uste dut joateko ordua dela –esan zuen Fatimetuk.

–Bai, lasai utziko ditugu – nik.

Hori esan orduko, txabolatik atera eta hau galdetu nion Fatimeturi:

–Fati, ez al duzue negarrik egiten honelako pobrezian bizitzen?–Kalean inork ez zuela negar egiten ikusia.

–Ez, hemengo jendeari ez zaio malkorik gelditzen– erantzun zidan Fatik irribarre triste batekin.

Oraingoan, burua jaitsi nuen eta pentsakor txabolara bueltatu ginen.

Fatimetu nire lagun kuttuna bihurtu zen. Egun horietan elkarrekin egon ginelako eta Fatimetuk gauza asko erakutsi zizkidalako.

Egun horietako batean, Fatimetuk horrelako gauza bat esan zidan “ez zaitut inoiz ahaztuko lagun” eta malko txiki bat erori zitzaion bere masail beltzetik. Eta hori esandakoan, bere lepotik zintzilikatzen zuen begi moduko lepokoa eman zidan eta nik nire pultsera berdea eman nion. Niri, beste malko bat atera zitzaidan eta biok besarkada bat eman genion elkarri. Ez nekien ongi zergatik egiten ari ginen hori baina agur bat zela iruditu zitzaidan. Ondoren, biak oheratu ginen eta nik, bat-batean, nire ohean nengoela ikusi nuen, baina zerbait arraroa sentitu nuen nire eskuan, Fatimetuk emandako lepokoa zen!

Hurrengo egunean, Mauritaniako lurraldera dirua, janaria eta hainbat gauza bidaliko nituela erabaki nuen. Eta baita ere, gelako lagunei lurralde pobreetara janaria etab. bidaltzeko proposatuko niela.